

**4/2018 AKTA**  
**NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK MAIATZAREN**  
**8an EGINDAKO BILERA**

**BERTARATUAK:**

**PRESIDENTEA:**

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea*

**1. PRESIDENTEORDEA:**

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruénigoko alkatea*.

**BATZORDEKIDEAK:**

Unai Laco Goñi jn., *Agoizko alkatea*.  
Karmele Maraño Chasco and., *Arbizuko alkatea*.  
Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea*.  
Ángel Obanos Galar jn., *Artikako Kontzejuko burua*.  
Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea*.  
David Alvarez Yanguas jn., *Castejónko alkatea*.  
Koldo Leoz Garciandia jn., *Lizarrako alkatea*.  
María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea*.  
Ángel Navallas Echarte jn., *Zangozako alkatea*.  
Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea*.  
Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko Kontzejuko burua*.  
Yolanda González García and., *Vianako alkatea*.

**Ezin etorria adierazi dute:**

Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesibarko alkatea*.  
Nieves Recalde Zaratiegui and., *Etxagueko Kontzejuko burua*.  
Joseba Asirón Saez jn., *Iruñeko alkatea*.  
Arturo Goldaracena Asa jn., *Tafallako alkatea*.  
Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea*.

**IDAZKARIA:**

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hemezortziko maiatzaren zortzian, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalen eta Kontzejuek Federazioaren egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

**GAI-ZERRENDA**

- 1.- Aurreko bilkuraren akta onestea.
- 2.- Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.
- 3.- Sektoreko batzordeetako eta kontseiluetako ordezkariak izendatzea.
- 4.- NUKFren, La Caixa fundazioaren eta Caja Navarra fundazioaren hitzarmena hiri espazioak berreskuratzeko 2018ko proiekturako.
- 5.-Batzorde Betearazlearen hurrengo bilkura beste egun batera aldatzea.
- 6.- Presidentearen informazioa.
- 7.- Galde-eskeak.

**1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren akta onestea**

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldeztu aurretik irakurri beharrik gabe, presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrik duen haren inguruan.

Inork ez du oharrik egin.

**ERABAKI DA:**

2018ko apirilaren 10ean egin bilkuraren akta onestea.

## **2. PUNTUA. Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.**

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Gizabide Batzordea (2018/04/11).** Bilkuran aztertu zen nola gauzatzen ari den Batzordeak ezarritako lan plana. Hartan NUKFren ordezkariak parte hartu zuen, baita Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak eta Gobernuaren Ordezkaritzak ere.  
Planak zenbait neurri aurreikusten ditu: prestakuntza/informaziokoak, bultzatze/motibatzeak eta hertsagarriak. Ezarritako edo aurreikusitako neurriak aztertu ziren, hala nola, entrenatzaileentzako prestakuntza edo balioen delegatua zelaietan egotea. Planteatu zen txartel berdea ezartzea (kiroltasuna saritzen duena), balioen dekalogo bat prestatzea, klubek izenpetzekoa, bai eta kode etiko bat ere, klubek hura betetzeko konpromisoa har dezaten.  
Ezarri zen ezen, Nafarroako Futbol Federazioko komunikazio arduradunen eskutik, sareetan bultzatu behar zirela kiroltasuna sustatzen duten mezuak.
- **Nafarroan 2014-2020an Programa Eragileari Jarraipena egiteko Batzordea (2018/04/19).** Bilkuran, aztertu zen noraino gauzatu den Nafarroak aurkeztutako Programa Eragilea. Nabarmendu zen gauzatze maila apala dela, oro har, gainerako autonomia erkidegoetan bezala, eta zenbait arazo egon direla eragiketarako ziurtatzeko; ez da gorabeherarik izan toki administrazioarekin lotutako puntuetan.
- **Nafarroako Eskola Kontseilua (2018/05/02).** Kontseilu horretako ordezkariak jakinarazi zuen kontserbatorioetan sartzeko onetsi behar ziren aldaketen berri eman zela. Halaber, zehaztu zen toki entitateek informazio asko zutela igortzeko hezkuntza sistemari buruzko txostena prestatzeko, eta maiatzaren 22an jardunaldi batzuk egin behar zirela hiriari eta haurtzaroari buruz.
- **Erroldatze Kontseiluaren Probintzia Atala (INE) (2018/05/04).** Udalerriek ofizioz igorritako baja espedienteen berri eman zen.
- **Nafarroako Taxien Kontseilua (2018/05/07).** Taxiari buruzko Foru Legea aldatzeko aurreproiektuaren berri eman zen.

### **ERABAKI DA:**

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

## **3. PUNTUA. Sektoreko batzordeetako eta kontseiluetako ordezkariak izendatzea.**

Proposatu da beherago zehazten diren organoetako ordezkariak aldatzea, beste batzuek ordeztu baitituzte izendapena ekarri zieten karguetan, eta, beraz, kargu horietan egun aritzen direnak izendatu dira. Hona hemen:

- **Nafarroako Boluntarioen Kontseilua,** Manuel Millera Carrera, Iruñeko Udaleko Herritarren Parte-hartzearen zinegotzia, Ana Lizoainen ordezkari.
- **Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea,** Itziar Gómez López, Iruñeko Udaleko Herritarren Segurtasunaren alorreko zinegotzia, Aritz Romeo Ruizen ordezkari.

**ERABAKI DA:**

Izendapena adierazitako moduan onestea.

**4. PUNTUA. NUKFren, La Caixa fundazioaren eta Caja Navarra fundazioaren hitzarmena hiri espazioak berreskuratzeko 2018ko proiekturako.**

Presidenteak proposatu du lankidetzaz hitzarmen berri bat izenpetzea La Caixa fundazioarekin, helburu izaneren duena diruz laguntzea hiri eremuak berreskuratzeko proiektuak. Aurreko ekitaldian sinatutako hitzarmen bera da, zehaztu duenez. Proiektua deialdi baten bidez gauzatu da, 2.000 biztanletik beherako toki entitateek finantzatu ahal izan ditzaten Politika Sozialetako Departamentuaren edo Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren deialdiaren babesean laneratzeko xedearekin ekitaldi honetan kontratatutako langileek beren jardueran erabili dituzten materialak. Hitzarmenaren arabera, NUKFk 90.000 euroko ekarpena jasoko du, betiere dagokion proiektuari esleitzen badio oso-osorik.

Behin hitzarmena onetsita, deialdiaren beharrezko oinarriak prestatuko dira, aurreko ekitaldian onetsi zirenak bezalakoak, halako eran non toki entitate guztiek aukera izanzen baitute proiektuak aurkezteko. Batzorde Betearazleak onetsiko du deialdia.

**ERABAKI DA:**

Delako lankidetzaz hitzarmena onestea, zeina honi erantsi baitzaio, eta, horrenbestez, gaitasuna ematea presidenteari sina dezan.

**5. PUNTUA.- Batzorde Betearazlearen hurrengo bilkura beste egun batera aldatzea.**

Presidenteak proposatu du Batzorde Betearazlearen hurrengo bilkura beste egun batera aldatzea, Batzar Berezia ekainaren 22an egin ahal izateko. Hau da, ekainaren 12an egin beharrean (hilabeteko bigarren asteartean), ekainaren 5ean egingen litzateke.

**ERABAKI DA:**

Batzorde Betearazlearen bilkura ekainaren 12tik ekainaren 5era aldatzea.

**6. PUNTUA.- Presidentearen informazioa**

Presidenteak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Garapen jasangarriaren helburuei buruzko jardunaldia egin zen apirilaren 11n.
- Datuak Babesteko Europako Erregelamentuaren Jardunaldia apirilaren 13an egin zen non azaldu baitzen zer egin behar duten toki entitateek hartara egokitzeko.
- Ondare immatrikulatua berreskuratzeko lan taldearen lehendabiziko lan saioa apirilaren 17an egin zen.

- Presidentea Parlamentuan azaldu zen apirilaren 17an, esplikazioak emateko Concejo aldizkarian populazioaren galeraz argitaratutako txosnaren inguruan.
- Apirilaren 19an bilkura egin zen hauteskunde elkarte eta alderdi politiko txiki batzuen ordezkariekin, zeinak Kontuen Auzitegiak irekitako zehapen espedienteek ukituta baitaude, hauteskunderi buruzko araudian aurreikusitako gastuaren muga gainditzeagatik.

Gai horren harira, Garbayo andreak hitza hartu du esateko gustatuko zitzaioela bilkura horren berri izatea. Presidenteak azaldu du toki entitate guztiei igorri zitzaioela bilkura horren deialdia, batetik horren gainen egon zitezen, eta, bestetik, daturik ez genuelako, ez elkarte horien helbideenak ez horien ordezkarienak.

Alvarez jaunak eskatu du gai honen inguruan egiten diren jarduketara guztien berri emateko.

- Apirilaren 23an LARESen ordezkariekin egin zen bilera. Hartan, haien arazoan berri eman ziguten eta adierazi zuten kezkatuta daudela Kontzertu Sozialei buruzko Lege berriaren eragina dela eta.
- Bilkura UEMArekin (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea).
- Maiatzaren 3an bilkura egin zen Burlatan, non azalpenak eman baitziren uholde planak prestatzeko laguntza berrien inguruan.
- Maiatzaren 4an lan bilkura bat egin zen Animaliak Babesteko Foru Legearen proposamen bat Parlamentuari aurkezteko agiria prestatzearen eratu den taldearekin.
- Toki Araubideko Foru Batzordearen hurrengo bilkuran, ziur aski, testu arauemaile hauei buruz egiten da txostena: Taxiari buruzko Foru Legearen aurreproiektua eta Joan den apirileko uholdeek egindako kalteak konpontzeko laguntzak arautzen dituen foru agindua.

Lehendabiziko testua laburtu eta adierazi da punturik garrantzitsuena dela berariazko prozedura baten arauketa, Iruñerriko Mankomunitatean egonda ere, taxiaren zerbitzua batera emateko eremuan ez dauden udalerrriak han sar daitezen.

Albizu jaunak adierazi du aldaketa horretaz baliatuta berariazko xedapen bat sar litekeela udalerrri txikiak taxi zerbitzuaren inguruan, esleitutako lizentzia bat erabiltzeari uzten zaionean, modua egon dadin hura berriz esleitzeko.

Presidenteak adierazi du horren berri emanen dela txostena egiten denean.

Uholdeen laguntzei buruzko foru aginduari dagokionez, idazkari nagusiak azaldu du partikularrentzako laguntzak direla soilik, ez azpiegitura publikoetan sortu diren kalteak konpontzeko.

- NUKFren plan estrategikoa prestatzeko eratu den taldearen bilkura egiten da hartan sartzea eskatu duten Batzorde Betearazleko kide guztiekin. Ziur aski maiatzaren 29rako egiten da deialdia eta oraindik ere eska daiteke hartan parte hartzea.
- Bidaia bat egiten da Saharara saharar ordezkariarekin. Azaldu da Batzorde Betearazleko bi kide joanen direla, NUKFren Batzorde Betearazlea ordezkatzuz, saharar ordezkariaren gonbidapenari helduz. Jakitera eman da saharar ordezkariak bere gain hartu dituela ostatuaren eta mantenuaren gastu guztiak, baina ez joan-etorriak, eta NUKFk hartuko dituela bere gain.

## ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

### **7. PUNTUA.- Galde-eskeak**

Fabo jaunak adierazi du Toki Inbertsioen Planaren 2017ko obrak atzeratu direla Kontu-hartzaitzak oraindik baimena eman ez duelako. Presidenteak esan du horren berri emanen diola Departamentuari.

Álvarez jaunak informazioa eskatu du kontratazioaren gainean, lege berriak indarra hartu baitu. Haren esanetan, beharrezkoa da baliabideak, pleguak-eta ematea toki entitateei, NUKFren bitartez nahiz Toki Administrazioaren bitartez.

Enrique andreak adierazi du Toki Administrazioarekin mintzatu dela behar horren gainean eta proposatu zaiela batera aritzea horretan. Bestalde, Ondare Zerbitzuari proposatuko zaio talde bat eratzea, gizarte eta ingurmen arloko baldintzak prestatzeko eratu zen moduan. Halaber, adierazi du berriazko prestakuntza emanen dela Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeari buruz.

Garbayo andreak administrazio elektronikoaren ezarpenaz galdetu du. Azaldu zaio zer jarduketa egin den gai horren gainean. Bilkurak egin dira ANIMSArekin, Iruñarekin eta Eguesibarko Udalarekin, dauden egoerak ezagutzeko eta ikusteko zer egin daitekeen.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko sei eta berrogeita bost direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.